

**ELKARRIZKETA ZER DEN
KAZETARITZA IKASLEEI
HURBILDU NAHIAN.
Leioan 030411**

Abisu bat zabaldu nahi dut beste ezer baino lehen, mintzaldi honen ordainak eta kontuak ez zaizkit niri eskatu behar, Txema Ramirez zuen irakasaleari baino. Berari eskatu kontuak nire jardun alferrikakoa amaitu eta gero.

Pose bat dela pentsatuko duzue, zuen arreta edo kupida eskuratzeko apalkeria faltsua. Oker zabilzate. Benetan ari naiz, serio serio: NI EZ NAIZ KAZETARIA, NIK EZ NUEN KAZETARI IZAN NAHI, NIK EZ DAKIT KAZETARITZA ZER DEN ETA, BERAZ, ARE GUTXIAGO DAKIT ELKARRIZKETA ON BAT NOLA EGITEN DEN. Seguru nago zuek zeuok neuk baino gogoeta gehiago egin duzuela gaiaren inguruan. Zer dakit nik ELKARRIZKETA ON BAT ZER DEN? Eta oso oker ez banaiz, horretarako egin dit dei Ramirez jaunak. KONTA EZAZU ZURE ESPERIENZIA PROFESIONALA, ere esan dit. Abisatuak zaudete, beraz, eta ez naiz batere harrituko zuen lekuetatik oraintxe bertan jaiki eta tabernan gosari moduko bate egitera joaten bazarete. Egia esan behar bada, horixe litzateke zentzuzkoena, denok elkarrekin gosaltzera joatea..

Egoskorra da, ordea, Ramirez jauna, eta etortzeko eta etortzeko. Hemen naiz, beraz eta *allá cuidaos*.

Ni zerbait banintzen, gidoigilea nintzen gidoia zer zen ez genekien garaietan. Artista, badakizue, komikiak, ipuinak, nobelak... mundu hori interesatzen zitzaidan betidanik. Gertatzen dena da, gure garaia ez zela txantxa (zuen ere ez da izango, jakina) eta handik edo hemendik atera behar zela atarramentua. Eta atarramentua diodanean, sosa esan nahi dut, dirua, bizitzeko beste diru. Eta nork uste behar zuen ipuinetatik eta abarretatik sosa aterazetik egongo zenik noizbait? Gaur ere ezinezkoa da hori gutako gehienontzat. Hala bada, beste lanbide batzuk ezagututakoa nauzue, lan arras ezberdinak. Esate baterako, milioi laurden giltzontzi edo llibero egin nituen Jimmy Carter Estatu Batuetako presidentearentzat. Eibarko tailer zikin batean. Nik zurgintzan nahi nuen, baina nire esku trakets hauek ikusten zituzten bezain pronto, antzarrak perratzera bidaltzen ninduten aroztegi guztietatik.

Denbora horretan guztian, hamalu urte nituenetik, euskarako klaseak eman nituen zirkunstantzia eta leku guztietan. Ez dakit zuen buruetan sartzen ote den, baina euskara musu truk erakusten zen garaietakoa naiz ni, hain zaharra ez izan arren. Kontua da gure gizartea aldatzen eta mugitzen hasi eta euskarako klaseak ordaintzen hasi zela jendea. Hasieran irreberentzia iruditzen zitzaigun hori. Geure hizkuntza erakusteagatik kobratzea nazkagarria iruditzen zitzaigun. Baina, egia, azkar ohitu ginen egoera berrira eta, asko ez bada ere, bizitzen hasteko adina ateratzen genuen euskararen bizkarretik.

Eta esango duzue zer ardura dizuen zuei honek guztiak, eta arrazoi duzuela usteko duzue, baina esan nahi dizuedana da, urte askoan euskara irakasten ibilitakoa naizela, euskara irakasteko lehenbizi “ikasi” egin behar zen garaietan eta horixe izan dela, orain dudan langintzan lagundu didan jarduera zahar bakarra. Esan nahi dut, Jimmy Carterren giltzontziek gutxi lagundu didatela gaur eguneko bizimoduan. Orduan, bai, orduan peska submarinako nire lehenengo fusila erosi ahal izan nuen. Ez zen gutxi izan.

Eta hala, ikasleez kokoteraino eginda, Euskadi Irratia izeneko bat bazela eta zertxobait idazten banekiela eta... oposaketak egin, eta halaxe aldatu nuen lanbidez. Orduan oraindik ez nintzen kazetari, izan ere oso modernoa nintzen ni kazetari arrunta izateko eta beti erabiltzen ninduten gauza bitxiatarako: Udaberriari edo Montecarloko Carolinari amodiozko gutunak idazteko, esaterako.

Nik garai hartan, ez nuen telebistarik ikusten. Telebistarik bazenik ere ez nekien ia. Eta hara non ikusten dudan egunkarian, barkatu, periodikoan, saio kulturalak egiteko “gidoigile” bat behar zela. To! Esan nion nire buruari. Zeinek esan behar zian hiri, eta halaxe, COMO HACER GUIONES PARA EL COMIC izeneko liburu bat irakurri ostean, oposiziora aurkeztu eta, redios!, neu txapeldun!

Egia esan behar badizuet, nik ez nekien gauza handiegirik telebistako langintza horretaz, baina uler ezazue, garai hartan denetarik egin behar izan nuen: idatzi, aurkeztu, zuzendu... pentsa ezazue Gabon Zaharretako programa inozo horietako bat aurkeztea ere egokitu zitzaidala, ez dakit Kaixo 88 edo horrelakoren bat ez ote zen izango. Handik atera nuen gauzarik harrigarriena, Miguel Boséekin mano-mano afaltzea izan zen.

Urte askoan denetarik egin dut nik: gastronomia saioak, elkarrizketa saioak... baina, batez ere kulturari eskainitako saioak. Bide horretan neuk ere egin nuen kazetari horretarako asmorik ez zeukan morroi bat: Martxelo Otamendi. Hurrengo batean berak kontatuko dizue nola gertatu zen hori. Ni baino hobeto gogoratzen da eta.

Beno, eta Piterren legea ezagutzen duzue ez laburtu egingo dut handik honakoa: nola eta nire jefeez saioak egiten dexentekoa nintzela uste zuten, lan exekutiboak ematen ere hasi zitzaizkidan Euskal Telebistan. Eta hala, nire karrerako gailurrik handienera iritsi nintzen: Kultura, Erljio eta Drama arloko buru. Harrapa ezak hori txikito!

Maiteok, nire bizitzako urterik txarrenak etorri ziren. Ezgauza banintzen kazetari normala izateko, pentsa dezakezue aginte postuetan egin nuen erridikuloa. Gainera, ez pentsa lan hori egiteagatik, saioetatik libratu nindutenik, bai zera! Hiru aldiz lan gehiago egiten genuen orduan, berdintsu kobratuz. Desastre handi bat bezala gogoratzen ditut urte haiek guztiak eta, batez ere, ondorengoak. Ezen, ai, ai, ai, zuzendaritza taldea aldatu egin zen denborarekin eta, jakinekoa denez, zuzendaritza berriak egiten duen lehenengo gauza, zuzendaritza zaharra kentzea izaten da. Galeretara, beraz. Gainera, dena esan behar bada, ni ere ez naiz oso morroi gozoa traturako eta ez dut sekula ikasi txorimaloen ipurdia mihizkatzen. Beraz, zigortuta, zulorik beltzenez sartuta igaro nituen urteak eta urteak. Baina hara!, orduan egin nintzen kazetari. Eta iritsi naiz, heldu nahi nuen puntura. Ikusten duzue, pazientzia apur batek, asko eman dezakeela.

Zigor denbora horretan, txistua jotzen ibiltzen nintzen pasiloetan. Orduan ere mutil handia nintzen ni eta asko kostatzen zitzaidan gizon inbisiblearena egitea. Programetako zuzendariak ezin ikusi ninduen begien aurrean eta nik ere ez bera. Halaxe segitzen dugu gaur ere, ez pentsa. Kontua da, informatiboetara destinatu ninduela bere paretik kentzeko eta hara hor mirari itzela! Ordura artean erdi gidoilari erdi idazle izandakoa, taust!, bihurturik kazetari.

Egia esan behar bada, lehorte urte horietan guztietan, bizitza paralelo bat eraman nuen. Egunkaria Sortzen talde terroristako partaide egin nintzen, besteak beste, eta zutabegintzan hasi nintzen. Han eta hemengo aldizkari guztietan idazten nuen. El Mundo del País Vasco sortu zen, literatur sari batzuk irabazi nituen, enpresa propial bat sortu... Zerbait egin behar nuen lan faltarekin erotuko ez banintzen.

Eta holaxe, esan dezaket telebistagintzak dituen alderik gehienak pasatutakoa naizela eta ezagutzen ez dudan bakarra, egunkariko, barkatu berriro, periodikuko, lana dela, nik egindakoa lankidetzara dei daitekeen sail horretakoa baizik ez baita, etxetik egiten den horietakoa: idatzi, bidali eta kobratu. Kitxo demonio.

Baina izan idazle edo izan kazetari, elkarrizketak egitea beti suertatu izan zait. Gogoan dut egin nuen lehenengoetako bat. Garai hartan, 83an edo, modu experimentalean, Video Art delakoari eskaintzen zitzaion ziklo bat Donostiako Zinemaldiaren barruan. Bill Viola videogileari egin behar izan nion elkarrizketa luze bat zuzenean. Normala irudituko zaizue, baina Bill Violak ez daki euskaraz eta nik ez dakit ingelesik. Areago, nik ez nekien Video Art delakoa zer izan zitekeen ere. Atera kontuak. Ez dut sekula ausardiarik eduki elkarrizketa haiei begiratzeko. Ez dakit artxihoan gorderik izango diren ere, orduan pulgadako zinta prehistorikoak erabiltzen ziren eta. Baina baten batek egindako lan haren aztarnarik topatzen badu inon, lapur dezala. Ordainduko diot ederki sutara bota baino lehen.

Honekin guztiarekin esan nahi dudana da, jakinda baino gehiago funtzionatzen genuela intuizioarekin eta, batez ere, kuriositatearekin. Orain ere bai. Gaur egunean ere bai. Kuriositatearen hori tresna oso interesgarria da elkarrizketak egiteko orduan. Jakin nahia, jakin mina. Ez dihardut kuriositate txoroaz, politikari bati korte bat ateratzeko behar den alukeria horretaz. Hori beste gauza bat da. Starlux, deitzen diot nik:

- Señor Diputado General, ¿podemos hacer un Starlux de todo lo que ha dicho referente a la nueva carretera?
- ¿Cómo dice?
- Le pregunto si podemos hacer un concentrado de carne, por favor.
- Como usted quiera.
- Pues hala, concentre, concentre.

Eta horrela bizitzen gera. Kontua da nekatu ere giten dela bat eta ikasi ere bai. Jarduerak dakar hori, berez-berez. Ez dakit nork esan edo idatzi zuen baina egia galanta da: politikari bati elkarrizketa on bat egitea baino errazagoa da, natilla bat iltze batetik zintzilikatzea.

Alferrik da.

Zorionez, —eta txorimaloen ipurtzuloa mihizkatzeko ohitura ezagatik dela uste dut—, oso gutxitan egokitzen zait niri politikariek lan egite hori. Kazetari gehienek horixe dute amets. Hortxe dute zerua. Nik ez, zertarako ibili berriketan. Gauzak argi. Nik artista jendea dut nahiago, zer nahi duzue esatea. Hori horrelaxe da. Ohitu ere egin naiz, jada gure arteko artistekin, familiak direla iruditzen zait askotan, baina oraindik gaur, emozionatu egiten naiz atzerritarren bat elkarrizketatu behar dudanean. Batzuetan kakalarritu ere bai, azkenengoz Lobo Antunes idazle handiarekin.

Madriren, iaz, Palace Hoteletako suite dotore batean, Tiempo aldizkarikoek ordaintzen zuten gela, baina txakur zahar dirugabeak izaki, guk geuretzat hartu, ur mineral, lore eder eta guzti.

- Me pita el trasto.
- ¿Cómo dice don Antonio?
- ¿Qué?
- Le digo que no entiendo lo que me dice.
- Habla más alto que no te oigo.
- Le digo que no le entiendo lo que me dice!!
- ¿Que si me duele el apéndice?
- Etc. etc. etc

Kriston elkarrizketa atera zen azkenean, hala ere. Arrazoia bat eta bakarra: Lobo Antunes munstro bat da.

Eta entzumen arazoez dihardugularik, beste anekdota bat, hau Txillida zenarekin. Ordubeteko elkarrizketa egin nahi nion dekoratu batean. Badakizue, telebistako dekoratu bat jartzeko orduak behar izaten direla, batez ere behar bezala argiztatzeko. Kontua da eseri ginela Txillida eta biok elkarren ondoan elkarrizketa egiteko eta TxillidaK:

- No oigo nada de este oído. ¿Me puedes entrevistar de este otro lado?
- Pues claro, no hay problema.

Eta orduan beste espezie bateko profesionala agertu zen: Errealiztailea. Eta ezinezkoa zela hori. Buelta eman behar zitzaioa dekoratu guztiari eta berriz argiztatu hura guztia. Han egon zen Txillida gizajoa nirekin, hiru edo lau ordu zain. Zirenak eta ez zirenak kontatu genizkion elkarri, batzuetan isilik geratzen ginen luzaro triste-triste, *es que no oigo nada* esaten zidan, *tranquilo tranquilo, enseguida estamos*, nik. Eta elkarrizketaren tenorea iritsi zenerako, nik jada ez neukan ezer galdetzeko gogorik eta berak ere ez erantzutekorik.

Zinta hori ere artxiboren batean aurkitzen baduzue, ederki pagatuko dut bere lapurreta.

Elkarrizketen garaian, hizkuntzak ere egiten ditu bere pasadak. Orain dela gutxi frantsesez elkarrizketatu behar izan nuen Gao Xinjan, Literatur Nobel Saridun bat. Badakizue Sautrelan nola egiten ditugun galdera pito horiek: amets bat, gezur bat, eta abar. Kontua da aurrez esplikatuta niola hori guztia txinoari, ahal izan nuen frantses hoberenarekin, eta hasten da grabazioa eta nik:

- Un rêve -eta txinoak, mutis.
- Un rêve—berriro nik, eta txinoa mutu, eta horrela denbora guztian.

Kontua zen, nik baino askoz hobeto egin arren, txinatarrak ez zuela frantsesa hainbeste dominatzen, are gutxiago nirea bezalako azentu estrainio batekin eta, batez ere, frantsesez ez direlako gauzak hain soilki galdetzen ahal. Kaka zahar bat egin genuen.

Baina euskaraz ere pasatzen da hori. Gutxi dakienarekin gauza ikaragarriak ikusi eta entzun ditugu. Niri izerdi hotza jaisten zait bekokitik behera, *zer moduz zaude* galdetu eta, *nintxateke oso posik* esanez hasten direnean.

Ondo dakitenekin ere arazoak eduki ditut, ordea. Battitta Hiriart izeneko jaun batekin esaterako. Jaun hau pastoraletako Errejentia zen. Zumalakarregi pastoralari ari ziren entsaiatzen Lakarrin nik galdeketa egin nionean, ustez, nire zuberotarrik finena erabiliz:

- Errejentia jauna, lehenik zer behar dützu pastoralaren egitekotz?

Eta erantzuna:

- Pastialanegitekotzlehenik behardiziaturrakorobildi.

Jakina, zur eta lur geratzen zara. Kalanbre batek harrapatuta bezala. Entzuten duzu Pastialanegitekotzlehenik behardiziaturrakorobildi eta sartzen zaizu kakalarri handi bat, ezen orduan zu baitzara iristen ez dena. Zeu zara lehen aipatutako kasuko “nintxateke” hori.

Horrelakoetan erreflexu azkarrak behar izaten dira:

- Eta bigarrenik? Zer behar duzu bigarrenik pastialaren egitekotz?

Eta sartzen zara editai gelan galdetuz ia zer demontre esan dizun jaun horrek eta ematen duzu play: Pastialanegitekotzlehenikbehardiziaturrakorobildi. Eta ematen duzu rewind eta berriz play: Pastialanegitekotzlehenikbehardiziaturrakorobildi. Eta horrela hogeita hamar aldiz. Hogeita hamaikagarrenean, etsi baino minutu bat lehenago, ahots zahar bezain domestikatu batek harrapatzen zaitu urdaitetik eta esaten dizu belarriraino:

- Pastoral egiteko, lehenik behar duzu aktoreak oro bildu.

AAAH! Orain bai erraza!

Bai, kuriositatea behar da aurretik eta, batez ere kuriositatea piztu behar duzu elkarrizketatuak. Gogoan dut, esaterako, duela bostehun urte elkarrizketa bat egin niola Paul Dutournier izeneko kontrabandista bati. Sarako Alkatea izana zen bizitza guztian. Jaun hori bere bizitza kontatzen hasi ahala, hain gelditu beregana itsatsirik, ordu erdikoa zena hiru ordotara eramanean baigenuen. Lagun handiak egin ginen. Baina zer nahi duzue, bada, Paulek hiru aldiz egin zuen ihes nazien konzentrazioguneetatik, mugaren alde batera eta bestera pasatu zuen jende mordoa, eta nik elkarrizketatu nuen garaian, Villoslada bahitutakoaren kasuan nahastuta zegoen. Kartzelan eduki zuten bere larogei urtetan. Kontrabandoari “gauezko lana” deitzen zion, berak ekarritakoak dira Irunen hasi eta Bilborainoko kable elektrikoak, Churchillekin parrandan ibili zen batean honek aitortu omen zion, Europako Merkatu Batua aspaldi asmatua zeukatela Sara eta Zugarramudi aldekoek. Alkate zen aldetik, ehunka bikote ezkonduak zituen baina bera ezkongabe, markesa baten maitalea zen oraindik ere. Hitz bat ere ikasi nuen berarekin: Txurrindu. Hiru aldiz txurrindu baitzen bera, hiru aldiz arruinatu. Gutxi ardura izan zion horrek beti. Ura ere gutxi edaten zuen, berarekin ikasi nuen Blanc Cassis edaten. Han ibiltzen zen bere auto biplaza metalizatu dotorearekin, egun batean atzerako martxa sartu eta itsasora erori zen arte larogei eta ez dakit zenbat urterekin. Halako bizitza bat duena parean egokitzen zaizunean, onena duzu lasaitu eta benetan disfrutatzea. Lagun egitea, orduan lortuko duzu elkarrizketa.

Bai, dokumentazioa behar da. Gaia guztiz ezezaguna denean batez ere. Baina gaia zerbait ezagutzen denean eta denbora askorik sekula egoten ez denez, ni gehiago naiz intuizioaren aldeko, ikastekoaren aldeko baino. Nire ustez galdetzaileak bere buruari galdetu behar dio gai edo pertsona horren bitartez zer argitu nahi duen. Zer jakin nahi duen “egiazki”. Behin hori erabakitakoan, pitokeriak albo batera utzi eta pertsonarengana hurbiltzen benetan saiatu. Harengandik lortu nahi dena lortu artean, hemendik eta handik tira egin, bildu, txukundu, eta zuzen eta garbi ulertzeko moduan eman, Horixe da gutzia, izatekotan.

Gertatzen den beste gauza bat ere, kontrakoa izan daiteke: intentzio onenarekin hasi eta *bluff* baten aurrean gaudela konturatzea. Orduan alferrik da luzamendutan ibiltzea. Gutxieneko materiala eskuratu eta alde hortik lehenbailehen. Hori da nire aholkua. Asko izaten dira horrelakoak ere. Gehientsuenak. Ofizioak dakar hori. Baina merezi du. Elkarrizketa aukera bikaina da auzoa eta mundua ulertzeko.

Egia esan, mila eginda ere, hiruzpalu bakarrik geratzen zaizkizu gogoan. Nik esaterako, Antonio Tabucchi izeneko idazle batekin Parisen egindakoa daukat gogoan. Halako gizona da hura ere, maitagarria, argia, jakintsua, artista! Non aurkituko duzu antzeko politikari bat. Erratuta daude kazetari guztiak politika nahiago dutela diotenean.

Beste bat ere gogoan daukat, Martin Ugalderi egindakoetatik bat. EZ DAGO LARROSARIK deitzen zen saio batean galdera indiskreto bat egiten nien gonbidatu

guztiei. Aurrez paktatua edukitzen nuen hori, eta sinetsiezadazue, emaitza harrigarriak lortu genituen. Benetan esan behar zuten egia elkarrizketatuek: zein da orain arte aitortu ez duzun arantza, aitortu ez duzun mina?

Martin Ugalde ederki ezagutzen dut nik, badakit haren gizatasunaren berri, maisu handia da niretzat arlo askotan, laguna ere bai, baina, hala ere, berriz utzi ninduen hunkituta:

- Hara, Hasier —esan zidan bere arantza zin galdetu nionean— gerra garaian nire lagun bat preso hartu zuten Ondarretako kartzelan. Bisitan joan nintzaion, eta barku bat hartuta Venezuelara nindoala ihesi esatera. Orduan lagunak esan zidan: baina hi, Martin, baina hi... nola joango haiz ni hemen utzita?. Begi haiek sekula ez zaizkit burutik ahaztu, Hasier —halaxe erantzun zidan.

Eta behin egiak esaten jarrita, esan dezagun egia guztia: neuri ere ez zait sekula ahaztuko Ugalderi begiak nola busti zitzaizkion erantzun hori eman zidanean.

Hasier Etxeberria.
Leioako kazetarigaiantzat.
Txema Ramirezek eskatuta.
030410 Hendaian
hasier@free.fr

IDAZLEA KAZETARI DENEAN.
(BOST IDAZLE liburuaren aitzakian).

- **Hemingwayren lehoiak.** Zeinek esan behar zidan niri, liburu bat idazteak halako hautsak harrotuko zituenik. Politikari, etxekoandre, idazle, irakasle... zer ez zait niri azkenaldian hurbildu? Nik zintzo-mintzo sinetsia nuen Hemingwayk errandako hura: **Idatzitako liburuak, hildako lehoiak dira.** Ez naiz ehiztaria, baina esalditxo horretan ulertzen nuen, eginda dagoen liburuak jada ez du kitzikadurarik ernarazten. Idazle-ehiztariak egin du egin behar zuen guztia eta alferrik dira hortik aurrerakoak. Julio Cortazarrek ere antzeko zerbait esaten zuen: **idazleak uztaiaren soka tenkatu eta gezia bota behar duela ahalik eta ongien dianarantz; behin gezia botata, ordea, alferrik direla beste guztiak.** Cortazarri ere fedea diot nik. BOST IDAZLE deitzen den liburu honek, ordea, ezberdina dirudi eta susmoa daukat lan handiagoa emanen didala idatzi eta gero, idazten eman zidana baino. Hau dela edo bestea dela, uste baino gehiago baitira egiten dizkidaten galderak eta neuk nahi gabe ere, behin eta berriro jo behar izan baitut bere orrialdeetara, honek edo hark zer esan zuen egiaztatzen. Gainera, aurrez uste ez nuen zerbait geratu da zorionez: mundu txiki eta anormal baten perbertsioa soilik zela uste nuena, ez da hain jende gutxiren kontua. Horixe da nik liburu honekin egin ahal izan dudana lehenengo egiaztapena, eta mirarietan mirariena, oraindik inork ez didala hitz txar bat bera ere esan, dakidan arren hori guztizko egia izatea ezinezkoa dela eta beti ibiliko dela norbait isilpean eta urrutiko haize mehea balitz bezala, esamesaka, berak hobeto egingo zukeela pentsatuz. Eta nik ere bai, nik ere horixe uste dut, beste norbaitek egin izan balu, askoz hobeto eginda zegokeela liburua. Horixe pentsatu nuen liburua idazteko asmoa eduki nuenean eta horixe pentsatzen dut oraindik ere. Zer dakit nik literaturaren eta idaztearen inguruko kontu hauetaz? Eta baldin badakit ere, zer dio axola inori nireak? Gainera, ez al dago hortxe Unibertsitate bedeinkatu bat, irakasle txit goren eta guzti? Eta kazetaritza historiko minimo bat, Jakin, Argia eta Egunkariaren inguruan? Nor naiz ni, Jauna, halako saltsetan sartzeko? Baina zer nahi duzue, zalantzarik ez da bazirela aproposagoak hamaika, baina neuri bururatu zitzaidan asmoa eta neuk bildu nuen aurrera ateratzeko behar zen kemena. Bi horiek, gutxienez, ez dizkit inork ukatzen ahal.
- **Eta noan hastapenera,** hortixe hasten baita guztia. Iazko udan izan zen, larunbat bazkalondo batean. Publizitaterik egin nahi ez diodan erdal literatur gehigarri bat esku artean neukan eta bertan Mario Vargas Llosa bi orrialde osotan Literatura Erotikoaz bata eta beste esaten. Pantaleon lo geratu zenez geroztik, ez diot nik aitormen handiegirik egiten Vargas Llosari, baina zer nahi duzue, han irakurri nituenak oso egin zitzaizkidan interesgarri. Eta ez zen izan literatura erotikoaeren zale aparta naizelako, aitzitik, nahiago izaten ditut jeneralean bestelako lanak, ez diodalarik ene buruari orain arte galdetu zergatik. Kontua da, hala ere, V. Llosaren erran haiek gehienak interesgarri egin zitzaizkidala eta halaxe iritsi nintzela letraz betetako bi orri zabal haien azkeneko lerrora eta han, parentesi artean, *opiniones recogidas por...* eta kazetari baten izena zetorren. Eureka! Pentsatu nuen. Hauxe zen behar genuena: gure idazleen berririk ez daukagu eta hauxe da modua. Zer galdetu,

ordea? Eta nola, eta nori, eta non...? Eta abar, eta abar. Gainera, egia esan behar badizuet, pikutara bidalduko nindutela pentsatu nuen, beti molestatzen ibiltzen naizen horietakoa bainaiz, (plataforma bat dela, manifestua dela, telebistarako elkarrizketa dela...) baina bai zera!, Sarrionandiarena jarri nuen martxan lehenbizi eta haren erantzuna baino lehen, Koldo Izagirre eta Anjel Lertxundirekin hitz egin nuen. Bi horiek izutzen ninduten guztien artean gutxien. Ondoren Bernardo Atxaga eta Ramon Saizarbitoria. Eta baietz, batzuk errenka eta beste batzuk orroka, baina baietz. Baina zer dela eta bost eta zer dela eta bost hauek?

- **Amodioen albiste.** Testiguak badauzkat, liburu honentzat bi titulu erabili nituen hasieran: *Bost idazle Euskalerriko* zen bata eta *Bost idazle kutun* zen bestea. Zorionez, bi horiek geratu ziren atzean eta hotzago bat BOST IDAZLE gailendu zitzairen. Baina, nioen bezala, zergatik bost eta zergatik bost hauexek? Neronek ere ez dakit xuxen erantzuten. Esango nuke gehiegi pentsatu gabeko erabakia izan zela hori. Nolabait, irudipen horixe nagusitu zitzaidala. Eta galdetuko didazue, bost hauenak al diren euskaraz idatzitako lanik onenak, eta ezetz erantzungo dizuet. Eta orduan galdetuko didazue bost idazle hauen lan guztiak ezagutzen al ditudan eta guztiak ote ditudan gogoko, eta berriro erantzun beharko dizuet ezetz, eta ezetz, ez dela hori bakarrik kontua. Abiapuntua ez baita idazlea, helmuga ere ez da idazlea. Biak, abiauntua eta helmuga, bat eta bera dira: irakurlea. Neu naizen irakurle hau baino ez. Augusto Roa Bastosek esan zuen bezala, **edozeinek baitaki idazten, aski da pazientzia, trebetasun eta ahalegin apur bat; irakurtzeko, ostera, ez du balio mundu guztiak.** Eta irakurriak ditudan arren bost hauenak ez diren liburu eder askoak, eta beste mila badirela dakidan arren, zer nahi duzue esatea, irudipena neukan bost nahikoa izango zirela irakurleari mundu baterako sarbidea erakusteko, ataria seinalatzeko. Seik edo gehiagok, aspertu egingo zuela irakurlea, asebeteta eta gogaiturik amaituko zuela irakurketa edo bidean aspertuta. Nola pentsatu nuen hori? Agian mahaiko gauzak ere asko maite ditudalako izango da eta badakidalako tamainak eta kopuruak plazer kontuetan daukan garrantzia. Eta orain galdegingo didazue: nor litzateke seigarrena? Edota, nortzuk lirateke hurrengo bosta? Baina ni erantzunik eman gabe geratuko naiz hala ere.
- **Salomonen kontra.** Konturatuko zineten bost hautatuen artean ez dagoela emakumerik. Askok eta asko larritu ninduen horrek hasiera batean. Pentsatu nuen gaur egunean ez zela izango ongi hartua emakume-kuota kontutan hartzen ez duen proposamena eta idazle ospetsuren batek galdetu ere galdetu dit hori. Jira eta bueltaka ibili nintzen horrekin, baina, esan dizuedan bezala, zeintzuk eta zenbat izango ziren erabakita neukan hasiera beretik. Segur nintzen nire irakurle irudipenaz. Han ez zen ageri emakumerik eta egon ere ez zen egongo. Jakingo ote nuen misoginoa ez nintzela erakusten? Azkenean neure andreak kendu zidan mamua burutik: “Baina zurea ez al da literatura kontua soilik?”, erran zidan. Eta kito, hortxe amaitu zen gora behera guztia. Beti bezala, emakumeak asmatu behar. Ondoren eduki nituen beste zalantza batzuk ere, Iparraldeko, Arabako edo Nafarroako inor ez zegoela, esaterako, baina emakumearentzat balio zuen erantzuna aski zen beste guztietarako.
- **Eta iritsi zen eguna.** Lana nola egiten deliberatu ezinik nenbilena, eskolakrako lan bat balitz bezala egin behar nuela erabaki nuen, euskarri bat beharko nuela baldin eta hainbeste hitz eta konturen artean zoratuko ez banintzen. Halaxe burutu nuen galdeketa luze-luze bat, neuri eta pare bat laguni (Gorka Arrese eta Mikel Maioz)

iruditu zitzaizkigun gehienak zerrendan jarrita. Hiru bat folio galderaz josita. 60 edo 70 guztira. Batzuk guztiz lotsatzeko modukoak: Noiz hasi zinen idazten? Zergatik? Eta antzerakoak. Iruditu zitzaidan, behingoagatik, besteek egiten zituzten gauzak egin behar genituela geuk ere, beranduago bazterrean lagatzeko izango baziren ere. Eta hala zabaldu zitzairen guztiei galdetegi berbera. Guztiek jakin zuten, hala ere, aurrez aurrekoan ezberdinduko zirela gauzak. Guztiek jakin zuten, halaber, elkarrizketa ez zela soilik literaturari buruzkoa izango, idazlearen testigantza ere nahi zela agertu. Nik uste guztiek ulertu zutela asmoa hasieratik eta gutxi edo asko, guztiak egon zirela ados metodologiarekin: elkarrizketa bakarra egingo zen, aurrez emandako galdetegiaren ingurukoa eta ondoren, transkripzioa erredaktatutakoan, aukera emango zitzairen gauzak orrazteko. Grabazioa, magnetofoi kaxkar batez egin ordez, audio eta bideo aurreratuenetan egitea ere deliberatu nuen, bihar edo etziko Euskal Liburutegi Nazionalari opari egin asmoz eta, beraz, Sarrirena ezik, beste material guztiak hortxe daude grabaturik. Bideo digitalean eta mini-diskean. Baionako Gure Irratiak materiala txukundu eta emititzeko asmoa du.

- **Barkaidazue memoria kaskar hau.** Baina zeharo ahaztuta daukat nola izan zen Sarrionandiarri egindako elkarrizketa. Besteen ordena ere ahaztuta daukat. Oker ez banaiz halaxe izan zen: Izagirre, Saizarbitoria, Atxaga eta Lertxundi. Denak euren etxeetan harrapatuta. Laurak amaituta neuzkan gabonak baino lehen. Ez zegoen gaizki. Lau hilabete lehenago baizik ez zen izan, Literatura Erotikoari buruzko irakurketa hura. Transkribatzea, txukuntzea eta idaztea bakarrik falta zen.
- **Orduan egin nuen gaiztakeria.** Zuzenean ez bazen zeharka, bostetik lauk bai behintzat, euren elkarrizketaz gain, besteren batena ere jaso zuten. Hau eurek ere ez dute gaur arte jakin. Eta nahi gabe hazi egin ziren elkarrizketa haiek, diskurtso desegituratuak zirenak ere, antolatuta eta txukun-txukun hasi baitziren agertzen. Brastakoan esandakoak fintzen eta ñabardurak ugaritzen. Hori guztia ikusteko primerakoa gertatuko da grabatutako guztia. Esango nuke, funtsean ez bada ere, forman oso ezberdinak izan direla aurrez-aurreko elkarrizketan ateratakoa eta emaitza. Eta ene ustez, hobea da azkenean geratu dena. Ene irudikoz, plater hau hobea da *al dente*, gordin gordina baino.
- **Argitaratzea.** Ez dakit zuen jakin-mineko ote den gai hau. Hala balitz esango nizuke.
- **Irakaspena.** Behin batean editore batek esan zidan ez zela errentagarria sukalde liburu bat euskaraz egitea. Hori salduko zuen amaren semerik ez zegoela. Galdera bat luzatu nion segidan: nola dakizu hori sekula egin ez bada oraino? Azkenean egin genuen hura ere eta agortua dela uste dut. Mundua ez da horregatik hobea izango baina inor txurrindu (arruinatu) gabe orain liburu hori behintzat bada munduan. Bost idazle liburu honekin ere antzera pentsa zitekeen, nori interesatuko zaio halako lan partzial bat? Kontua da hori ez dagoela jakiterik egin artean. Pentsatzen dena egin egin behar da. Konfiantza eduki behar da euskal irakurlearengan eta, oro har, euskal herritarrengan. Orain gaztelaniaz ateratzekotan gara. Seguru asko Espainiako inongo argitaletzek ez du Alberdaniarekin apustu egin nahi izango horretan. Nik bai egingo nukeela apustu, Espainiako edozein editorial ertainetako katalogoan agertzen den erdi-mailako liburuak adina saldu baietz CINCO ESCRITORES VASCOS delakoa.

- **Kalteak.** BOST IDAZLE liburuak orain arte ekarritako kalteak, oster, bi bakarrik izan dira. Bata: kanibalismoa. Bera baino astebete lehenago INESAREN BALADA izeneko gazte liburu bat atera nuen. Abril saria irabazteko zorian egon dena eta espainieraz eta katalanez argitaratu berri dutena. Beste liburu honek estalita jaio da. Beste kaltearen berri Koldo Izagirrek berak eman dit: “Hasier beti izango haiz liburu hau egiteagatik ezagutua, besteak hor konpon”. Koldok ezagutzen nau baina ez behar adina, eta ez daki, oraindik ere beste liburu batzuk, handiagoak, ederragoak eta hobeak egiteko asmoa daukadala. Amen.